

KRIMINOLOGIAKO GRADU AMAIERAKO LANERAKO¹ GIDA

1. Sarrera:

A. Kriminologiako GRALak honako egitura hau izan behar du: **atal teoriko bat eta beste bat enpirikoa; edo atal teoriko bat eta beste bat, gaiaren egoera² berrikusiz.** Bigarren mota honek lehenago egindako lan eta azterketen analisia behar du erraztu, GRALi edozein azterketa teorikok ez duen perspektiba enpirikoa (kuantitatiboa eta kualitatiboa) jarritz.

B. GRALak honako hiru modalitate hauetakoren bat jorratu behar du: **ikerketa proiektu bat, txosten kriminologiko bat edo nahitaezko kanpoko praktiken ebaluazio txosten bat.** Modalitate hauetariko bakoitzari dagozkion edukiak aurrerantzean zehaztuko dira.

C. GRALeko zuzendaria:

- Gradu amaierako lana kriminologiako graduan eskolak ematen dituen sailen bateko kide diren irakasleek zuzenduko dute.
- GRALak zuzendari bat baino gehiago izan dezake, baina,.
- Unibertsitateko beste sail edo ikastegi batzuetako doktoreek ere zuzendu ahalko dituzte GRALak, baldin eta zuzendarikide bat badago, graduan eskolak ematen dituen sail batekoa, edo gradua irakasten den ikastegiari atxikia.
- Baldin eta ikasleak GRAL osoa edo zati bat UPV/EHU ez den erakunde batean egiten badu, praktika hitzarmen baten barruan, unibertsitateaz kanpoko pertsonen zuzendu ahal diote, baina, nolana ere, beti izan beharko du zuzendari edo zuzendarikide bat bederen graduko titulazioan irakaskuntzarik duten saileko kide.

D. Kriminologiako GRALak prestakuntza ekintza hauek izango ditu bere baitan:

- a.- Orientazio mintegia lana esleitu eta egiteko (0,5 ECTS).
- b.- Banan banako tutoretza saioak (0,5 ECTS).
- c.- Lana paperean eta bertsio elektronikoan entregatzea (9 ECTS).
- d.- Lana epaimahai baten aurrean azaldu eta defendatzea(8 ECTS).

E. Irakasle zuzendariari aitortutako irakaskuntza kredituak: Jardun Akademikoaren Planaren arautegiarekin bat etorruta, GRALeko zuzendaritza honetara konputatuko da:

- Lana 8 kreditu edo gutxiagokoa bada, 0,25 kreditu.
- Lana 8 kreditu baino gehiagokoa eta 12 kreditu baino gutxiagokoa bada, 0,37 kreditu
- Lana 12 kreditu edo gehiagokoa bada, 0,5 kreditu

¹ Aurrerantzean GRAL.

² Bigarren mota honek lehenago egindako lan eta azterketen analisia behar du erraztu, GRALi edozein azterketa teorikok ez duen perspektiba enpirikoa (kuantitatiboa eta kualitatiboa) jarritz.

Kredituak aitortzean muga hauek errespetatu beharko dira:

- Lana amaitu eta handik bi ikasturtetara aitortuko dira kredituak, baldin eta lana kalifikatua izan bada, ez bestela.
- Irakasle bakoitzari gehienez ere 6 kreditu aitortuko zaizkio ikasturte berean.

2. Gaitasunak

1. Argumentazio eta arrazonamendu kritikorako teknikak behar bezala erabiltzea.
2. Ahoz eta idatzizko komunikazio prozesuak menperatzea, publiko espezializatuei informazioa egokiro transmititzeko gai izanik.
3. Ikasketa prozesua modu jarraitu eta autonomoan gestionatzea.
4. Gai batean espezializatzea, lan merkatura arrakastaz sartuko bada edo, hala balegokio, geroagoko espezializazio edo ikasketa prozesuekin jarraituko.

3. Gradu amaierako lana egiteko prozesua

A. Kriminologiako GRAL, gutxien dela, 100 orrialde luze izango da. Honako hau izango da formatu estandarra:

- Letra tipoa eta tamaina: Times New Roman (12 pt) edo Arial (11 pt).
- Lerroartea: 1,5
- Goiko, beheko eta eskuineko marjinak: 2,5 cm; ezkerreko marjina: 3,5 cm.
- Orri tamaina: DIN-A4.

B. Aurkezpen, aipu, bibliografia, zenbaki eta kapituluak egoki ordenatu eta ondorioak agertzeko erabili ohi diren formazko arauak bete beharko ditu (MLA, Harvard, APA, ISO, eta beste).

C. Azalean agertuko du ondoko informazio hau:

- Aurkeztutako lanari dagokion graduaren izena.
- Akademi ikasturtea.
- Lanaren izen osoa.
- [Ikaslearen izen osoak] eginiko lana
- [Tutore edo tutoreen izen osoak] zuzendutakoa

D. Ikasleak arreta berezia agertu beharko du parafraasi bidezko testuen kopia eta aipuekin. Plagioa deskalifikatzeko arrazoia da lan hauen kasuan eta bereizi behar da aipu testualetik eta dokumentazio zurrunetik.

E. Modalitateak:

- **1. modalitatea: Ikerketa proiektu baten egitea.**
 - Ikerketa proiektuaren deskribapena. Proiektuaren testuingurua osatzen duten aurrekari bibliografikoa, gaiaren egungo egoera, helburu orokorrak eta espezifikoa, proiektuaren jasotzaileak eta lan hipotesia.
 - Interes zientifikoa eta soziala

- Erabilitako metodologia. Atal honetan sartu beharrekoak dira: diseinu esperimentalak, aztertu beharreko laginaren deskribapena, emaitzak erdiesteko erabili diren teknika eta instrumentu bakoitzaren deskribapen zehatza, bai eta emaitza hauen analisi estatistikoan baliatutako prozedura ere. Deskribaturiko prozedura guztiak UPV/EHUren etika batzordeak ezarritako arautegiari lotuko zaizkio (<http://www.ikerkuntza.ehu.es/p273-shetichm/eu/>).
- Lortutako emaitzak
- lan planerako kronograma.
- Ikerketa proiektuaren garapena.
- Ondorioak.
- Eranskinak (Aukerakoa).

• **2. modalitatea: Txosten kriminologiko bat egitea**

- Esparru teorikoa.
- Kasuaren azterketa.
- Txosten kriminologikoa egin.

• **3. modalitatea: Kanpoko praktikak ebaluatzeko memoria**

- Sarrera. Kanpoko praktiketan zehar egindako jarduerak aurkeztu ahal izateko behar den informazioa, legokiokeen informazio bibliografikoa barne.
- Jardueraren garapena. Kanpoko praktiken barruan garatutako jarduera ezberdinen aurkezpena.
- Materiala eta metodoak. Kanpoko praktikak garatzeko baliatutako teknika eta/edo metodologiak deskribatzea.
- Ondorioak eta balioespen kririkoa. Lehenago deskribaturiko jarduera eta metodologiaren balioespen kritikoa sakonki garatzea.
- Proposamena. Landutako arloan litezkeen hobekuntzak edo esku hartzeko programa bat proposatuko dira.
- Bibliografia
- Eranskinak (Aukerakoa).